

Etorkizunarekin bueltaka

Arratsalde on, denoi!

Eta hau nor da? esango du zuetako batek baino gehiagok. Komunikaziokoek ezagutzen nauzue, zuen irakaslea izan naizelako. Hezkuntzakoei, berriz, ez dizuet eskolarik eman, baina badakizue nor naizen, ekaitz eta elur egunetan neuk bidali dizkizuedalako goizean goizeko mezu horiek, esaten eskolarik ba ote genuen edo ez. “Gaur, osteguna, BAI emango dira eskolak HUHEZIn”. Orain bai, ezta, jarri diozue aurpegia postariari?

Gaur elkartu gara hemen zuen graduaren bukaera ospatzeko. Seguruenik, zuen bizitzan egongo dira gaurkoa baino egun seinlatuagoak, baina esango nuke, nola edo hala, aurrerago, gogoan izango duzuela graduazio eguna, besterik ez bada, lau urte hauean unibertsitatean egin dituzuen lagunen bideak banatu egingo direlako gaurtik aurrera. Dagoeneko, hasi zarete arrastoak uzten zuen bizitzaren bidean. Eta hor Antonio Machado datorkit gogora, eta, bereziki, unibertsitatean nintzela irakurri nion poema bat: *“Caminante, no hay camino. Se hace camino al andar”*.

Zuen aurpegiak ikusita, sasoi betean, etorkizuna datorkit behin eta berriro gogora. Eta, uzten badidazue, horretaz hitz egingo dizuet gaur: etorkizunaz.

Joan den mendean, orain 45 urte, ezustean ikusi nuen etorkizuna bere ederrean. Hemendik 200 metrora gertatu zen, Zinema areto batean, Ideal zineman, gu 16 urteko nerabeak ginela. Stanley Kubrick zine zuzendariaren pelikula bat ikusi genuen: “2001: espazio odisea”. Hura ikusita, hurbildu ginen gizakiaren hastapenera eta deskubritu genuen espazioaren edertasuna. Teknologia ere, sekula baino erakargarriagoa agertu zitzaigun pantailan. Zinetik irtendakoan, lagunak sinistuta geunden etorkizuna ikusi genuela, eta egunetan aritu ginen film haren tolesturak eztabaidatzen, erantzun guran pelikulak planteatzen zituen galderak. Urte ilunak ziren haiek, diktadurapean bizi ginen, eta, seguruenik horregatik ere, pelikula hark liluratu egin gintuen, arnas freskoa zekarrelako, ustel usaineko giro itxi hartan.

Orduan ikasleak ginen, eskola frankistako umeak. Neskek neskekin ikasten zuten, eta mutilok, mutilekin. Erljioa derrigorrezko ikasgaia zen, Formación del Espíritu Nacional bezala, eta, salbuespenak salbu, buruz ikasten genituen edukiak. Ez geunden pozik ez frankismoarekin, ez eta frankismoak antolatutako eskola ereduarekin. Horregatik, atzerrira begiratzen genuen, ea beste eskola mota bat posible ote zen. Eta piska bat geroago, jakin genuen bazirela ahots batzuk beste eskola mota bat aldarrikatzen zutenak. Jean Piaget eta Paulo Freire, besteak beste, eta lehen aldiz entzun genuen Summerhillgo eskolaz. Hau, ikastetxe berritzaile bat zen, eskola demokratikoen mugimenduko aitzindaria.

Guretzat etorkizunak hainbat izen zituen: askatasuna, demokrazia, Euskadi, euskara, ikurriña, ikastolak, musika, modernitatea, bidaiatzea, espazioa, etabar, etabar.

“Caminante, no hay camino. Se hace camino al andar”.

Baina denborak ez dauka gupidarik. pelikula ikusi genuenean oso urruti iruditzen zitzaigun 2001. urtea. Baina, konturatu orduko, 2001 gainera etorri zitzaigun. Eta 2001 askoz ere arruntagoa zen Stanley Kubrick-en 2001 hura baino: AEBek George Bush semea aukeratu zuten presidente; ETak Elektra enpresako bi kide hil zituen,

bonba-auto baten bidez; irailaren 11n Dorre Bikiak behera etorri ziren, sekulako atentatu batean; AEBetako armadak Afganistan inbaditu zuen; Espainiak kendu egin zuen derrigorrezko soldadutza; Wikipedia sortu zen; Bitoriano Gandiaga, Jack Lemmon eta George Harrison hil ziren... Alegia, 2001ean betiko argi-ilunekin segitzen genuen.

Baina ordurako bazen berrikuntza bat 2001 filmeko gidoilariek aurreikusi ez zutena, eta urte hartarako gure bizitzak aldatzen ari zena. Bai, bitxia da, eta behin baino gehiagotan gertatu da: askotan, iraultzarik handienak iragarri gabekoak izaten dira. Kasu honetan, Internet eta sarea. Isilka-misilka sartu zitzaizkigun etxean eta eskolan, administrazioan, hedabideetan, enpresan eta unibertsitatean. Eta Internet aldatzen ari da gure bizimodua, lan egiteko era eta harremanak. Kasu honetan, bizitza aurreratu egin zaio fikzioari.

Eta eskola? Non geratu ziren Piaget, Freire, Summerhill eta halakoak? Uste dut aurrerapen handiak egin zirela gure eskoletan, batez ere ikastolen sorrerarekin. Seguruenik hori izan da irakaskuntzan bizi izan dugun aldaketarik handiena. Baita eskola publikoak izan duen eraldaketa ere. Ahaztu barik, jakina, behingoz iritsi zela Euskal Herrira unibertsitate publikoa. Eta, bere txikian, halako batean agertu zela lehen unibertsitate kooperatiboa, Mondragon Unibertsitatea, haxe. Zerbait eduki behar du, zeren eta, orain bi aste, Uruguako presidentea Euskal Herrira etorri zenean, espreski eskatu zuen Mondragon Unibertsitatea bisitatzea, hemengo modeloaz jakin nahi zuen-eta gehiago.

Eta, hemen gaudela, aipatuko dizuet orain dela gutxi, eta pasadan, pertsona bati entzundakoa gure unibertsitatea uzten duten ikasleen inguruan, alegia, zuei buruz: “Hemen lau urte eginda, zer uste duzue, bada, geratzen zaiela ikasleei? Zenbat aldiz egin duten larrutan, eta norekin. Besterik ez!”. Hitz horiek, bistan da, mespretxu aire batez esanda zeuden, baina, hark esandakoa egia balitz, izango genuke pozteko motiborik, erakutsiko lukeelako Euskal Herria aldatzen ari dela, eta gaur egungo gazteak gure garaikoak baino normalagoak zaretela. Eta, hala ere, uste dut maitasuna egiten baino zerbait gehiago ere ikasi duzuela hemen. Seguru nago, beste irakasle hark arrazoi handiagoa zuela. Haren iritziz, denbora pasatu ondoren, unibertsitate garaitik bakarrik geratuko zaizkizue liburu pare bat, irakasleren bat, markatu zaituena, edo hemen egin dituzuen lagunak. Nire kasuan, aipatu dizuet Antonio Machadoren poema hura:

“Caminante, no hay camino. Se hace camino al andar”.

Baina zuek amaitu dituzue ikasketak, eta orain lan bila hasi behar. Batzuek Hezkuntza ikasi duzue. Besteek, Ikus-entzunezko komunikazioa. Logikoa da lan bila hastea bakoitzak landu duen esparruan. Baina gerta liteke, halabeharrez, lanean hasi beharra zuena ez den esparru batean, ikasitakotik kanpokoa. Hori gertatzen bazaizue, ez larritu, jende askori gertatu zaio-eta. Urrutira joan barik, nik Historia ikasi nuen, baina nire ibilbide profesionala banatu da Komunikazioa eta Irakaskuntzaren artean. Sekula ez dut lan egin Historian, eta ez naiz damutzen.

Eta zuengana itzulita, kontuan hartu etorkizuna. Besterik ez bada, Woody Allen zine zuzendariak emandako arrazoiarengatik. Hark esan zuen: “Etorkizuna interesatzen zait, hor pasatu behar ditut-eta geratzen zaizkidan urteak”. Etorkizuna zuen esku dago, zuek eraiki behar duzue zeuena. Bide berriak bilatuta, arriskuak hartuta... Eta, ikusita egoera ekonomikoa nola dagoen, hartu beharko dituzue, bai, arriskuak.

Egoera honetan, baliteke behin baino gehiagotan biderik ez ikustea, noraezean ibiltzea, bizitza nahastuko zaizuelako. Horrelakoetan, ez etsi, eta gogoratu Antonio Machado maisu eta poetak idatzitako hitzak:

*“Caminante, no hay camino. Se hace camino al andar.
Al andar se hace camino
Y al volver la vista atrás
Se ve la senda que nunca
Se ha de volver a pisar.
Caminante no hay camino, sino estelas en la mar...”*

Gogoratu: ez dago biderik. Zuek egin beharko duzue zeuena. Eta egingo duzue.

Mila esker, eta zortetik onena bizitzan.

Joxe Aranzabal

Arrasaten, 2013ko ekainaren 14an.